

GEOGARAPEN EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAREN KUDEAKETARAKO ELKARTEA

Sozietatearen izena

Geogarapen, Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca.

IFK

G75018705

Izaera

Elkartea.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

2009ko azaroaren 16an, Zumaiako, Debako eta Mutrikuko Udalek Geogarapen Euskal Kostaldeko Geoparkearen Kudeaketarako Elkartearen eratu zuten, bazkide fundatzaile gisa. Ondoren, Gobernu Kontseiluak, 2010eko abenduaren 14an egindako bilkuran, Eusko Jaurlaritzaren erakundeko bazkide egitea eskatu zuen.

Sail-atxikipena

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

8412 Osasun, hezkuntza eta kulturaren alorreko jarduerak eta beste gizarte-zerbitzu batzuk arautzea, Gizarte Segurantzaren salbu.

Helburua eta xedeak

Elkartea helburu hauek lortzen ahaleginduko da:

- 1 Euskal Kostaldeko Geoparkearen lurraldea modu iraunkorrean eta orekatuan garatzea. Babes berezia izango dute kostaldeko balio geologikoek, naturalek eta kulturek. Elementu horiek guztiak babesteko, beraz, zenbait ekimen garatuko dira eta hainbat jarduera martxan jarriko, lurralde horretan bizi diren pertsonen mesederako.
- 2 Lurralde horretako ondare naturala babestea eta zaintzea. Bereziki, lurraldeko ondare geologikoa babestea eta baliabide moduan duen balioa aintzatezea, herritarren garapen ekonomikoa eta soziala garatze asmoz.
- 3 Lurralde horretan lur-zientziak sustatzea ondoko alor hauetan: ikerkuntza, hezkuntza (arautua nahiz arautu gabekoa) eta zabalkuntza. Eta beste ingurumen- eta natura-zientzia batzuk bultzatzea.

- 4 Kultura-ondarearen balioa agerian jartzea, dinamizatzea, berreskuratzea eta zabaltzea.
- 5 Kultura-ondarearekin, ondare materialarekin nahiz ondare immaterialarekin lotura duten jarduerak sustatzea eta gauzatzea (tradizioak, ohiturak, ogibideak, ahozko memoria, sormen artistikoa, eta abar). Lehenetasuna izango dute ondare geologikoarekin, paleontologikoarekin eta arkeologikoarekin loturarik gehien duten jarduerak.
- 6 Ingurumen-hezkuntza sustatzea. Zainduko dira, bereziki, lurraldearen berezko balioak.
- 7 Natura-turismoa eta kultura-turismoa sustatzea, iraunkortasuna zainduz. Lurraldeko balio geologikoek garrantzi handia izango dute.
- 8 Turismo-kultura ez ezik lurraldearen eskaintza ere hobetzea.
- 9 Geoparkeen helburuekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak dinamizatzea. Laguntza eskainiko zaie, bereziki, tokiko produktuekin lotura duten ekimenei.
- 10 Eta, azkenik, beste erakunde batzuekin sustatzea eta gauzatzea Elkartearen xedeak sustatzen lagun dezaketen lankidetzajarduerak.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.

Sozietatearen Funtsa

Ez du halakorik.

Bazkideak

Zumaiako Udala
 Debako Udala
 Mutrikuko Udala
 Gipuzkoako Foru Aldundia
 Eusko Jaurlaritza
 Unesco Etxea.
 Aranzadi Zientzia Elkartea
 Debemen Debabarreneko Landa Garapeneko Elkartea
 Urkome Urola Kostako Landa Garapeneko Elkartea
 Debegesa Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkartea
 Urola Kostako Mankomunitatea

Batzar Orokorra

Batzar Orokorra bazkide guztiek osatuko dute. Organo horretan bazkideek beren iritzia eman ditzakete.

2013ko urteko kontuak

[2013ko finantzetako egoera-orriak eta jarduera-memoria.](#)

2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	123.364 €
Ondare garbia	82.392 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	67.634 €
Batez besteko langile-kopurua	Ez dago eskuragarri

Sozietatearen helbidea

Ifar kalea, 4. 20820 Deba (Gipuzkoa)

Webgunea

www.geoparkea.com